

IL AZALPEN PROBA • <i>Odolean neraman</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Tentsio bereziko partida izan nuen igande arratsalde hartakoa. Neure deklarazioen aferagatik, noski, eta entrenatzaileari emandako hitzagatik. Hasieran, baloia hartzen nuen bakoitzean, ikusleek txistuak eta aurkako oihuak jaurtitzen zizkidaten, geziak balira bezala: gezi-euri etengabea. Edo urakan bati egin behar ote nion aurre, hain baitzen bortitza harmailetatik zetorkidàn burrunba? Camp Nou bertatik ezagutzen ez duenari lekuz kanpoko irudituko zaio konparazioa, baina Camp Nou ezagutu egin behar da, eta nik ezagutzen dut. Eta giroaren gehiegiak beldurtu ere egin zaitzake, eta beldurrak blokeatu. «Beldur eszenikoa» deitzen dio Valdanok. Arrazoi du. Halaxe egon bainintzen ni ere lehen hoge minutuetan, kikildua eta zurrundua bezala, beldur eszenikoaren menpe. Baina, orduan, alboko sake bat ateratzea egokitu zitzaidan. Marraz kanpo zegoen baloia jasotzera nindoala, ongi bai ongi entzun ahal izan nion beheko harmailetan zegoen agure zahar bizar-luze bati, zeina nabarmen jantzia baitzihoan, sonbreru mexikar gorri-urdin batekin: «Jo puc ser una antigalla, però tu ets un marica!». Baloia jaso eta zuzenean so egin nion, segundo batean. «Si, tu!», esan zidan, hatz erakuslea luzaturik. Baina nik eutsi egin nion orduan ere, beste segundo batean. Eta erraietan gar bat sentitu nuen, adoretu egin ninduen, guztiz adoretu, are gehiago kikildu beharrean.

Alboko sakea atera eta bost bat minutura, ordea, guztiz aldatu ziren gauzak, orpoz sartu bainuen gola, airean inoizko saltoa eginik, sekulakoa. Eta Camp Nou osoa belaunikatu zitzaidan. Eta ni, munstroa edo haize-erauntsia garaitu duen heroia bezala sentitu nintzen. Handik aurrera, festa.

IL AZALPEN PROBA • <i>Odolean neraman</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 250 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Baina esan dut: gaizki eraman izan dut aulkia, oso gaizki ere bai, batzuetan. Eta noiz edo noiz, egin behar ez nituèn deklarazioak egin izan ditut, Barçan egon nintzen garaian, adibidez. Ordezkoek ere, baztertuak diren neurrian, gutxieneko errespetua merezi baitute. Baina, funtsezkoa eta agerikoa badirudi ere, artean ez nuen ikasia lezio hori, eta zer egingo diogu, bada? Kontua da, Bartzelonan egin nuen bigarren denboraldian, bost partida segidan neramatzala jokatu gabe, eta *La Vanguardia*-ko kazetari bat etorri zitzaidala zirika, esanez Barça ligan zazpigarrena zegoela, teorian zegoekion baina askoz beherago, eta ea ez al nuen hartan zer esanik. Titular bikaina eman nion biharamunerako: «*Eneko Ortega: X. no me pone, porque no se le pone*». Eta letra txikian: «*Yo no he venido a Cataluña como esas antiguallas que viajan a cuenta del INSERSO para tomar el sol en Sitges o en Benidorm, sino a jugar al fútbol, y si no me ponen me voy*».

Biharamunean, jakina, ekaitza. Egun hartan jai genuen, eta goizean goiz deitu zidan Núñez presidentea: «*Hay que rectificar*». Eta nik, jakina, errektifikatu egin nuen, prentsaurreko batean. «*Antiguallen*» kontu hura, batez ere. Ezetz, ez nuela hitz hura esan nahi, nik ere banuela izugarri maite nuen amona bat, eta ez nintzela amonaren teiltuaren kontra harrika ibiliko; eta ezetz, hirugarren adinekoak ez zirela aprobeztegi batzuk, hura ere gaizki esan nuela, eta barkatzeko, ongitxo mereziak zituzten-eta bidaiatxo haiek, bizitza osoan lan egin ondoren eta segurtasun sozialari urte luzeetan zergak ordaindu ondoren. Entrenatzaileari buruzkoan, berriz, hura gu bion arteko afera zela esan nuen, eta kito.